



IUS Cooperativum

An international association of co-operative lawyers



GEZKI

UPV/EHUko Gizarte
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutua
Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU



International
Co-operative
Alliance



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

4rd International
Forum on Cooperative
Law

*The cooperation among
cooperatives: a
principle of the past or
for the future?*

4. Kooperatiben Zuzenbideari buruzko Nazioarteko Foroa

"Kooperatiben arteko lankidetzaren printzipioa: iraganeko edo etorkizuneko printzipio bat?"

2023/11/29tik 2023/12/01era, Donostia

Foroari buruzko informazio orokorra

Kooperatiben Zuzenbidearen IV Nazioarteko Foroa GEZKIren (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua), UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen eta Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak (ICA) lagunduta antolatuta da. Foro honen gai nagusia hauxe da: *"Kooperatiben arteko lankidetzaren printzipioa: iraganeko edo etorkizuneko printzipio bat?"*, Zuzenbide kooperatiboaren inguruko bestelako gaien inguruan ere ekarpenak egitea posible delarik.

Foroa 2023ko azaroaren 29tik abenduaren 1era egingo da, Donostian, eta formatu hibridoa izango du (online jarraitu eta parte hartzeko aukerarekin). Foroaren hizkuntzak ingelesa, gaztelania eta euskara izango dira.

Laburpenak bidaltzeko deialdian azaltzen den bezala, lan bat aurkezteko interesa duten partehartzaileei 2023ko maiatzaren 10era arte gehienez 300 hitzeko laburpena bidaltzeko gonbidapena egiten zaie, 4thforumcooperativelaw@gmail.com helbidera, onartutako lanen bertsio laburra akta liburuan publikatzeko aukera egongo delarik.

Ikertzaile gazteak

Ikertzaile gazteen presentzia eta ekarpenak bultzatzeko, eta hauen interes espezifikoiei erantzuteko asmoz, ekimen ezberdinak egongo dira:

- Foroaren saioetan ikerlari gazteek (35 urtera arte) aurkeztutako bi komunikazio onenak sarituko dira, 200 eta 100 euroko dotazioa izango dutenak. Sarietan parte hartzeko, horretarako interesa espresuki adierazi beharko da, eta komunikazioa idatziz eta Foroan bertan aurkeztu beharko da.
- Doktorego tesien tailer espezifiko antolatuko da (Zuzenbidea eta kooperatibak lantzen dituzten tesiak). Horretan parte hartzeko interesa dutenek haien tesi proiektua azaltzen duen dokumentua aurkeztu beharko dute, gehienez 2 orrialdetako. Epea: ekainaren 10a.



IUS Cooperativum

An international association of co-operative lawyers



UPV/EHUko Gizarte
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutua
Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU



ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

4rd International Forum on Cooperative Law

*The cooperation among
cooperatives: a
principle of the past or
for the future?*

Oharra: tailer honetarako tesi proiektua eta Fororako komunikazio proposamenak aurkeztea bateragarria da.

- Foroan Ikerlari gazteentzako txokoa antolatuko da, saretzea, ikerketari buruzko inguruabarrak partekatzea, etab. Helburu izango duena.

Informazioa

Foroari buruzko informazio osoa hemen argitaratuko da (laster): www.iuscooperativum.org / www.gezki.eus